

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




2.4. Eskaintako etxebizitzaren bolumena lurralde historikoa

2010eko bigarren hiruhilekoan salgai eskaintako etxebizitza berri libreak honela banatu dira lurraldeka: Bizkaian kokatu da eskaintza guztiaren % 47, Gipuzkoan % 32 eta Araban, azkenik, gainerako % 21.


Salgai antzemandako segmentu babestuak bestelako banaketa ezagutu du; izan ere, Arabak bereganatu du, oraingoan ere, eskaintzaren zati handi bat –guztizkoaren % 36-, Bizkaiak % 34 eta Gipuzkoak % 30. Hala ere, segmentu babestuak Araban duen agerpen handia azken hiruhilekoetan murriztuz joan dela aipatu behar da, ezin baita ahaztu duela urtebete Araban eskaintako etxebizitza babestuen proportzioa guztizkoaren % 56 zela.

2.11. grafikoa Eskaintako etxebizitza berri libreen kopuruaren bilakaera lurralde historikoa




Iturria: Eskaintza Inmobiliaria. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

2.12. grafikoa Salgai eskaintako babes ofizialeko etxebizitza kopuruaren bilakaera lurralde historikoa



Iturria: Eskaintza Inmobiliaria. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



3. ALOKATZEKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3.1. Merkatu libreko errentak

Atal honetan higiezin jabetzako agenteek alokairuko merkatuan eskaini dituzten partikularren bigarren eskuko etxebizitzaren segmentua aztertzen da. Alokairuaren batez besteko errenta 892 €/hilean izan da 2010eko bigarren hiruhilekoan, hau da, iaz baino % 3 gutxiago. Dena den, 2010ean goranzko joera nagusitu da.

Lurralde historikoka, Gipuzkoako batez bestekoa, 972 €/hilean, gainerako lurraldeetako baino zerbait altuagoa da; Bizkaian antzemandako etxebizitzaren batez besteko errenta 898 €/hilean da eta 830 €/hilean Araban antzemandakoena.


Bilakaerari dagokionez, antzeko portaera erakutsi dute hiru lurraldeek, Bizkaiko -% 2,9 eta Arabako -% 4,1 bitarteko urteko tasa negatiboekin. Epe luzeko azterketa baten arabera, 2008ko batez besteko maximoetatik uzkurdua ezagutu dela ikus daiteke, eta 2010ean egoera aldatzea lortu da Bizkaian eta Gipuzkoan (ikus 3.1. grafikoa.. grafikoa).

3.1. taula Alokatzeko etxebizitza erabili libreen hileko errentak lurralde historikoka.

€/hilean	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2009 II.. hiruhilekoa	865,6	925,1	1.005,9	922,6
2009 III. hiruhilekoa	832,3	906,5	976,3	894,3
2009 IV. hiruhilekoa	836,7	881,0	941,1	875,3
2010 I. hiruhilekoa	838,6	894,4	972,2	888,8
2010 II.. hiruhilekoa	829,7	898,3	972,3	892,3
Hiru hileko tasa	-1,1	0,4	0,0	0,4
Urteko tasa	-4,1	-2,9	-3,3	-3,3


Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.1. grafikoa. Alokairuan eskainitako bigarren eskuko etxebizitzaren hileko errenten bilakaera.



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


Etxebizitzek errenta-segmentuka lortu duten banaketari helduta, nabarmen ikusten da prezioen sakabanaketa. 720-840 € arteko errenten tartean bildu da etxebizitzaren




proportzio altuena (guztizkoaren % 25), eta 840-960 € artekoan ondoren (segmentu honetan kokatzen da batez besteko errenta), guztizkoaren % 22 bereganatuz.

Bestalde, errenta altuenen segmentuetan metatu dira eskaintzaren bolumen altuagoak, baxuenekin alderatuz. Horrela, etxebizitzaren % 11 1.080-1.200 € arteko errentaren barruan eskaini dira eta % 11k gainditzen dute balio hori. Kontrako muturrean, eskaintako etxebizitzaren % 7k bakarrik erregistratu dituzte hileko 600 eurotik beherako errentak.

3.2. grafikoa Alokairuan eskaintako etxebizitza libreen errenten banaketaren bilakaera, 2006-2010.



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



3.2. Merkatu babestuko errentak

Merkatu babestuaren batez besteko errenta 210 €/hilean da. Balio hori BOEren hileko 328 euroko errentaren eta etxebizitza sozialen hileko 115 euroko errentaren arteko batez besteko haztatua da.


Bilakaerari erreparatuz, bi etxebizitza-modalitateek urteko % 2 inguruko murrizketa ezagutu dutela egiazta daiteke; eta -% 7koa izan da iazko balioarekiko ezagutu den guztizko murrizketa. Beherakada hori eskaintzan antzemandako etxebizitzaren guztizkoan etxebizitza sozialek duten agerpenak izandako hazkundeari zor zaio.

3.2. taula Alokairuko etxebizitza babestuen hileko errentaren bilakaera, 2004-2010


	BOE	Etxebizitza sozialak	Etxebizitza babestuak guztira
2004	385,4	164,3	257,3
2005	397,5	147,6	278,2
2006	384,9	141,0	263,2
2007	325,3	131,7	194,1
2008	380,3	118,0	233,8
2009	325,0	121,4	219,8
2009 II	333,6	117,9	225,4
2009 III	329,4	119,7	224,3
2009 IV	325,0	121,4	219,8
2010 I	337,9	118,8	208,0
2010 II	328,1	115,3	209,9
Urteko aldaketa-tasa (%)	-1,6	-2,2	-6,9

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.3. grafikoa Alokairuko etxebizitza babestuetako errenten bilakaera, 2000-2010.



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




3.3. Salgai dauden etxebizitzaren karakterizazioa

3.3.1. Alokairuan eskaintako etxebizitza erabiliak

Alokairuan antzemandako eta eskaintako bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko azalera 78 m² da. Tamainaren arabera banaketari erreparatzen bazaio, % 49k 75 m² baino gutxiago dituztela ikus daiteke; % 26k 76 eta 90 m² arteko tamaina dute eta gainerako % 25ek 90 m²-ko azalera erabilgarria gainditzen dute.


Bilakaerari dagokionez, tamaina txikiagoko etxebizitzaren kopurua handituz joan dela ikus daiteke. Izan ere, azterketa sakonago batek erakusten duen moduan, 60 m²-tik beherako azalera erabilgarria dute 2010eko bigarren hiruhilekoan eskaintzan antzemandako etxebizitzaren % 22k dagoeneko (ikus3.5. grafikoa. grafikoa).

3.4. grafikoa Alokairuan dauden etxebizitza libreen azaleraren bilakaera, 2004-2010




Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.5. grafikoa Alokairuan eskaintako 60 m² baino azalera txikiagoa duten etxebizitza libreen bilakaera, 1999-2009.



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




3.3.2. Alokairuan eskaintako etxebizitza babestuak: salgai jarritako eskaintza babestuekin konparazioa

2010eko bigarren hiruhilekoan eskaintako etxebizitza babestuen guztizkotik % 34 alokairuko etxebizitzak dira eta % 66 salgai dauden etxebizitzak. Bilakaerari erreparatuz, alokairuaren agerpenak eskaintza babestuan pixkanaka hartu duen garrantzia ikus daiteke.


Eskaintako etxebizitzen tamainari dagokionez, tamaina txikiko etxebizitza gehiago daude alokairuan (% 43 <75 m²), salmentan daudenekin alderatuta (% 24 <75 m²).

3.6. grafikoa Eskaintako etxebizitza babestuen bilakaera edukitza-erregimenaren arabera, 2000-2010




Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.7. grafikoa Alokairuan eta salmentan eskaintako etxebizitza babestuen azaleraren bilakaera, 2003-2010



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



4. ESPARRU GEOGRAFIKOEN ARABERAKO AZTERKETA


4.1. Salgai dauden etxebizitza berri libreak

Prezioak esparru geografikoka aztertzean ikus daitekeenez, aztertutako esparru geografikoetako prezioen arteko aldea murriztea lortu da, azken bi urteetan hiriburuetan kokatutako etxebizitzaren batez besteko prezioak ezagututako murrizketaren ondorioz. Zehazkiago, hiriburuetakoko batez besteko prezioa 4.494 €/m² izan da 2010eko bigarren hiruhilekoan (-% 3 09-II aldiarekiko), beraz, 2008ko hasieran erregistratu zen batez bestekoa baino % 12 baxuagoa da –urte hartan hasi zen batez besteko prezioaren beherakada-.


Aldi berean, hiru euskal hiriburuetan erregistratutako batez besteko prezioak oso desberdinak dira: Bilbok lortu du batez bestekorik altuena (5.442 €/m²), eta ondoren kokatu da Donostia (5.130 €/m²); azkena da Gasteiz, batez besteko prezioa dezente baxuagoa duelarik (3.723 €/m²). Bestalde, prezioen bilakaera arras desberdina izan da Bilbon eta beste bi euskal hiriburuetan. Horrela, Bilbon 2010eko bigarren hiruhilekoan eskaintzan antzemandako etxebizitzaren batez besteko prezioak duela urtebete erregistratutakoa gainditu du (+% 6), baina Donostian eta Gasteizen, aitzitik, batez besteko baxuagoak erregistratu dira oraingoan (-% 4,5 eta -% 2,5, hurrenez hurren).

Bestetik, hiriburuaren esparruetan kokatutako udalerrietan dauden etxebizitzaren batez besteko prezioa 4.067 €/m² da, hau da, hiriburuetakoko batez bestekoa baino % 9,5 baxuagoa; EAEko gainerako udalerrietan salgai eskainitako etxebizitzaren batez besteko prezioa 3.565 €/m² da, hiriburuetakoa batez bestekoa baino % 21 baxuagoa.

4.1. grafikoa Etxebizitza berri libreen m2-ko prezioen bilakaera esparru geografikoka.




Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

4.2. grafikoa Etxebizitza berri libreen m²-aren prezioen bilakaera hiriburuetan.




Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


2010eko bigarren hiruhilekoan Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkestaren bitartez eskaintzan antzemandako etxebizitza berri libreen banaketari dagokionez, hiriburuek bereganatu dute eskaintzaren % 26; hiriburuen eraginpeko esparruan kokatutako udalerrietan daude % 32 eta gainerako etxebizitzak (% 42) EAEko beste udalerrri batzuetan daude.

Hiriburuei helduta, Gasteizek bereganatu du antzemandako eskaintzaren gehiena (% 14); Bilbok % 8 eta Donostiak % 4.

4.3. grafikoa Hiriburuetako etxebizitza berri libreen pisu erlatiboaren bilakaera. 1996-2009



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



4.2. Salgai dauden etxebizitza erabiliak

Higiezin jabetzeko agenteen bitartez eskainitako partikularren bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 4.200 €/m² izan da hiriburuetan 2010eko bigarren hiruhilekoan, hortaz, duela urtebete antzemandako eskaintzan erregistratu zen batez besteko prezioa zerbait gainditu dela ikus daiteke (+% 1,3).


Hiriburuetan salgai eskainitako eraikuntza berriko etxebizitza libreen batez bestekoarekin alderatuz, erabilien batez besteko prezioa etxebizitza berrien batez bestekoa baino % 6,5 baxuagoa da.

Donostian erregistratu da, alde handiarekin, batez bestekorik altuena (5.536 €/m²), eta balio horrek Bilbon antzemandako etxebizitzena (4.252 €/m²) gainditu du (+% 30), bai eta Gasteizen (3.592 €/m²) kokatutakoena ere (+% 54).


Dena den, bilakaerari erreparatuz, hiriburu gipuzkoarrak erregistratu duen batez bestekoak uzkurdura esanguratsua ezagutu duela ikus daiteke (-% 7,2 09-II aldiarekiko), Bilbon txikiagoa izan da uzkurdura (-% 2,7 09-II aldiarekiko) eta Gasteizko batez bestekoak ez du aldaketarik ezagutu azken urtean (% 0,4).

Hiriburuak alde batera utzita, hiriburuetatik kanpoko eremu funtzionaletan kokatutako etxebizitzaren batez bestekoa 3.515 €/m² da (hiriburuetatik batez besteko prezioa baino % 16 gutxiago); EAEko gainerako udalerrietan kokatutako etxebizitzena, berriz, 3.374 €/m² da (hiriburuetatik batez bestekoa baino % 20 gutxiago).

4.4. grafikoa Etxebizitza erabilien m2-aren prezioen bilakaera esparru geografikoka.




Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

4.5. grafikoa Etxebizitza erabilien m²-aren prezioen bilakaera hiriburuetan.



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2010eko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




4.3. Eraikuntza berriko etxebizitza babestua


Etxebizitza babestuari dagokionez, 2010eko bigarren hiruhilekoan antzemandako eskaintza hiriburuetan kokatu da gehien bat, ohikoa den moduan; hain zuzen ere, hiriburuek bereganatu dute guztizkoaren % 59. Gainontzekoei dagokienez, % 16 hiriburuen eremu funtzionaltako udalerrietan daude eta gainerako % 25 EAEko beste udalerrri batzuetan.

Azterketa sakonago bat eginez, Gasteizen eskaintza babestuak duen protagonismoa azpimarratu behar da; horrela, tipologia horretako etxebizitzaren % 37 Arabako hiriburuan daude; Donostian eta Bilbon, berriz, % 13 eta % 9 dira portzentajeak, hurrenez hurren. Hala ere, azken hiruhilekoetako ibilbideak erakusten duen moduan, Gasteizen kokatutako eskaintzaren pisu erlatiboa murriztuz joan dela esan daiteke (ikus 4.7. grafikoa. grafikoa).


4.6. grafikoa Etxebizitza babestuen eskaintzaren banaketa geografikoaren bilakaera. 1997-2009



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



4.7. grafikoa Hiriburuetako etxebizitza babestuen pisu erlatiboaren bilakaera, 1996-2009.



Iturria: Eskaintza Inmobiliaria. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



5. MERKATUAREN DINAMIKA ETA PERSPEKTIBAK

5.1. Egungo dinamika

5.1.1. Merkatuaren egoeraren kalifikazioa

Higiezin merkatuko dinamismoaren indize orokorra higiezin sektoreko eragileek merkatuari buruz duten iritzia oinarrian hartuta kalkulatzen da eta 2010eko bigarren hiruhilekoan 18 puntukoa da (0-100 puntu). Balio horrek azken bi urteetan higiezin merkatuak bizi duen egoera zaila erakusteko balio du.

Lurralde historikoka, eragile arabarrek antzeman dituzte gehien uneko zailtasunak; dena den, indize baxuak lortu dira hiru lurraldeetan. Eragile motari dagokionez, higiezin sustatzaileek maila baxuago batean eta duela urtebetekoaren parean kokatu dute indizea (12 puntu); higiezin jabetzeko eragileek, berriz, bigarren eskuko merkatuan jarduten dutenek nagusiki, egoeranegatiboa antzeman dute, halaber, baina iazko maila gainditu dute (23 puntu, 16 punturen parean).


5.1. taula Higiezin merkatuko dinamismoaren indizeak* lurralde historikoka.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
I. hiruhilekoa 2009	16,6	9,5	7,7	10,2
II. hiruhilekoa 2009	15,6	13,1	11,6	13,4
III. hiruhilekoa 2009	15,9	15,5	14,9	15,6
IV. hiruhilekoa 2009	28,7	18,6	20,6	20,6
I. hiruhilekoa 2010	15,3	25,6	18,8	22,8
II. hiruhilekoa 2010	4,8	21,9	16,3	17,5

*: 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitarteko batez bestekoak.


Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.1. grafikoa Dinamismoaren indizeen bilakaera* lurralde historikoka, 1995-2010 (batez besteko mugikorrek-4)



*: 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitarteko batez bestekoak.

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



5.1.2. Salmenten bilakaera eta materializazio-epeak

Higiezinaren jarduera murrizten ari den testuinguru honetan, sektoreko eragileek baieztatu ahal izan dute 2010eko bigarren hiruhilekoan lortutako salmenta-maila aurreko hiruhilekoan erregistratukoaren parekoa dela, nahiz eta Araban salmentek hobera egin duten, Bizkaian okerrera egin duten eta Gipuzkoan salmenta-erritmoari eutsi zaion.

Denbora-tarte luzeago bat aztertzen bada, 2009ko bigarren erdian lortutako indizeak hobetu direla ikus daiteke -urte hartan lortu ziren erregistrorik txarrenak (ikus5.2. grafikoa. grafikoa)-.


5.2. taula Salmenten bilakaera* aurreko hiruhilekoarekiko lurralde historikoka.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
I. hiruhilekoa 2009	60,5	48,8	53,1	52,5
II. hiruhilekoa 2009	49,6	43,5	49,5	46,9
III. hiruhilekoa 2009	51,0	61,9	62,3	59,9
IV. hiruhilekoa 2009	60,8	64,2	61,4	62,5
I. hiruhilekoa 2010	46,2	61,3	59,4	58,5
II. hiruhilekoa 2010	63,2	41,5	50,3	47,9

*: 0 (salmentek orokorki okerrera egitea) eta (100 hobekuntza orokorra)


Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.2. grafikoa Salmenten bilakaera aurreko hiruhilekoarekiko lurralde historikoka (batez besteko mugikorrek-4).



*: 0 (salmentek orokorki okerrera egitea) eta (100 hobekuntza orokorra)


Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



2010eko bigarren hiruhilekoan batez beste 8,1 hilabete behar dira etxebizitza bat saltzeko. Etxebizitza bat saltzeko behar den denbora higiezinaren merkatuko jardueraren adierazle garbia da, hortaz, merkatua geldirik badago epea nabarmen luzatzen da. Alabaina, merkatuak geldialdi handiena ezagutu duen unean, etxebizitzak saltzeko batez besteko epea inoizko luzeena izan da (10 hilabete), eta azken hiruhilekoetan, maila altuan mantendu bada ere, epea zerbait laburtzea lortu da (ikus 5.3. grafikoa. grafikoa).


Bestalde, higiezinaren sustatzaileek adierazi dutenez, 2010eko bigarren hiruhilekoan 3,4 etxebizitza berri saldu dira batez beste (3,8 ziren aurreko urteko hiruhileko berdinean). Modu berean, aldi berean 2,6 etxebizitza alokatu zituen sustatzaile bakoitzak (3,8 09-II aldian).

5.3. grafikoa Etxebizitzak saltzeko batez besteko epeak* eta salmenten hiru hileko erritmoak



*: Etxebizitza bat saltzeko behar diren hilabeteak

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




5.1.3. Merkatuko dinamikan eragina duten faktoreak


Faktore ugari eragiten dute, zentzu batean zein bestean, higiezin merkatuko dinamika. Orain arte, interes-tasa baxuei eta aldeko egoera ekonomikoari esker merkatua mugitzea lortu da, baina gaur egungo egoeran finantzaketa lortzeko dauden zailtasunak direla-eta, interes-tasa baxuak ez dira merkatua dinamizatzen duten elementu gisa ikusten.

Hain zuzen ere, sektoreko eragileen ustez, gaur egungo egoeran ez dago faktorerik sektorea dinamizatzen positiboki eragiten duenik. Jarduera suspertzeko oztopo nagusia egoera ekonomikoa bera da; bien bitartean, erosketarako pizgarriak dira aztertutako faktoreen artean eragin negatibo gutxienekoa (ikus 5.4. grafikoa. grafikoa).

5.4. grafikoa Merkatuko dinamikan eragina duten faktoreak



*: -100 (eragin negatibo handiena) eta +100 (eragin positibo handiena) bitarteko batez bestekoak.
Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.




5.2. Perspektibak

5.2.1. Salmenten bilakaeraren aurreikuspena

Higiezin merkatuko jardura nabarmenki geldirik dagoen testuinguru honetan, sektoreko eragileek datorren hiru hilabetera begira salmentek zerbait gora egingo dutela aurreikusi dute: hobera egingo dute higiezin sustatzaileek, eraikuntza berriko etxebizitzaren segmentuarekin lotuta, eta hobera egingo dute higiezin jabetzako agenteek, bigarren eskuko merkatuarekin lotuta nagusiki. 2010eko bigarren hiru hilabeterako salmenten aurreikuspen-indizea 55,7 puntukoa da HJAen kasuan, hau da, aurreko hiru hilabeterako egindako aurreikuspenen parean ia-ia.

5.5. grafikoa Salmenten aurreikuspen-indizeen bilakaera* (batez besteko mugikorrek-4)



(*): 0 (salmentek orokorki okerrera egitea) eta (100 hobekuntza orokorra) bitarteko batez bestekoak.

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiru hilabeterako. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.2.2. Prezioen bilakaeraren aurreikuspena


Higiezin sektoreko eragileek datorren urtean prezioen beherakadak jarraituko duela aurreikusi dute eta aurreikuspen bera egin da hiru lurralde historikoetarako. Prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizea 39,8 puntukoa da 2010eko bigarren hiru hilabeterako, eta nahiz eta bilakaera negatiboa izan den, 2009ko aldi berdinean lortutako 33,9 puntuko indizea gainditu da.

5.3. taula Prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizea urtebetara lurralde historikokoa.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
I. hiru hilabeterako 2009	36,1	32,5	33,6	33,4
II. hiru hilabeterako 2009	32,5	35,2	33,5	33,9
III. hiru hilabeterako 2009	37,2	37,4	38,8	38,1
IV. hiru hilabeterako 2009	41,7	38,8	41,6	40,0
I. hiru hilabeterako 2010	39,6	44,7	41,4	42,6
II. hiru hilabeterako 2010	35,5	42,6	38,7	39,8


*: 0 (salmentek orokorki okerrera egitea) eta 100 (hobekuntza orokorra) bitarteko batez bestekoak.

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiru hilabeterako. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



5.6. grafikoa. grafikoa baieztatzen den moduan, azken hiruhilekoetan gorakada arina ezagutu du prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizeak. Oraindik prezioek gora egin dutela ezin esan badaiteke ere, badirudi azken bi urteetan antzemandako uzkurdura etetea lortu dela. Sustatzaileen indizea 41,9 puntukoa da eta HJAen kasuan zerbait baxuagoa, 37,7 puntu.

5.6. grafikoa Prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizea urtebetera. (Batez besteko mugikorrek-4)



(*): 0 (salmentek orokorki okerrera egitea) eta 100 (hobekuntza orokorra) bitarteko batez bestekoak.

Iturria: Eskaintza Inmobiliarioa. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza, 2009.

5.2.3. Sustapen berriak hasteko aurreikuspenak

Amaitzeko, etxebizitza-sustapen berriak merkaturatzeko aukerari buruz galdetu zaie higiezinaren sustatzaileei: egin dituzten aurreikuspenak estatistika-serietik baxuenak dira eta aurreko hiruhilekoan lortutako balio altuekiko desberdinak. Zehazkiago, sustatzaileen % 5ek bakarrik uste dute sustapen berriak merkaturatuko dituztela datorren hiruhilekoan.

5.7. grafikoa Hurrengo hiruhilekoan etxebizitza-sustapen berrien eskaintza hasteko aurreikuspena. Baiezkia erantzun duten sustatzaileen proportzioa (%).



Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta. 2010eko 2. hiruhilekoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



6. METODOLOGIARI BURUZKO ERANSKINA

Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, etxebizitzak eskaini dituzten EAEko sustatzaileei eta higiezin jabetzako agenteei (HJA) egindako zenbait inkestatan oinarritu da. Sustatzaileen multzoan prospekzio bat egin da eta Inkestan barne hartu dira etxebizitzaren eskaintza (bost etxebizitza baino gehiagoko sustapenak) egiten duten guztiak; modu berean, 125 higiezin-eragilek osatutako lagin baten informazioa barne hartu da.

Inkesta honek, berau gauzatutako unean eskutan duen eskaintzaren kuantifikazioa zein kualifikazioa egiteko eskatzen dio eragile inmobiliario bakoitzari. Sustatzaileen kasuan, bestela ezin zitekeen moduan, etxebizitza berriez ari gara, eta HJAen kasuan, bai etxebizitza berriez (sustatzaileen bidez saldutakoez), baita erabilitakoez (partikularren bidez saldutakoez) ere. Bestalde, eragileek gaur egungo egoera eta higiezin merkatuaren etorkizuneko aukerak baloratu dituzte.

Zentzu horretan, kontuan hartu behar da txosten osoan aurkeztutako datuak, 5. kapitulukoak izan ezik, 4. serieko batez besteko mugikorrek direla (hau da, azken lau hiruhilekoetako batez bestekoak). Metodologia horri jarraitzen zaio, laginen datuak islatzean sarritan gerta daitezkeen joera eta aldaketa bortitzak leuntzeko.

Bestetik, kontuan hartu behar da adierazitako prezioak batez besteko prezio haztatuak direla²; hortaz, hainbat faktorek eragiten dute horien bilakaeran: prezioak, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza-kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Zentzu honetan, eremu espazial jakin bateko prezio-aldaketak, batez bestekoen aldaketak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzaren kostuaren prezio-jaiste orokor gisa ulertu behar derrigorrez; aitzitik, prezio txikiagoko etxebizitzaren agerpen handiagoa duen eskaintza-egitura baten konfigurazioari dagozkiola uler liteke.

² Salmentako batez besteko prezioak, etxebizitza bakoitzagatik eta metro koadroko, etxebizitza mota bakoitzaren bolumenaren arabera haztapena eginez kalkulatu dira.